



PRENTSA-OHARRA

Santa Maria Katedrala Fundazioak 360°-ko errealitate birtualeko hiru bideo berri aurkeztu ditu, Katedralaren eraikuntzaren historia osorik ikus ahal izateko

- Katedralaren eraikuntza-bilakaerari buruzko sekuentzia osoa osatu ahal izango da espazio guztietan.
- Bisitariak ikus-entzunezko murgiltzaile berriez gozatzeko aukera izango dute aste honetan hasita.
- Proiektua Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak finantzatzen du.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 16an.- Santa Maria Katedrala Fundazioak **hiru ikus-entzunezko berri** aurkeztu ditu gaur goizean, eta, horiei esker, bisitariak Katedralaren eraikuntza-bilakaerari buruzko sekuentzia osoa osatu ahal izango dute espazio guztietan, **Errealitate Areagotuan** bisita osoa egitearekin batera.

360°-ko ikus-entzunezko murgiltzaile berriak **Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak** finantzatu ditu, eta aste honetan bertan sartuko dira Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala errealitate birtualaren bidez ezagutzeko bisita gidatuen eskaintzan.

Cristina Gonzalez lehen diputatu nagusiak eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioako foru diputatuak eta Joan Lasa Santa Maria Katedrala Fundazioko kudeatzaileak gaur aurkeztu dituzte prentsaurrekoan hiru eszena berriak, eta azpimarratu dute orain amaitzen ari den proiektu honek bisita-programen eskaintza turistikoa indartzen duela.

Cristina Gonzalez diputatuak berretsi duenez, eszena berriek “proiektu bati amaiera emango diote, eta bisitariak aukera izango dute denboran zehar ‘bidaiatzeko’ errealitate birtualaren bidez eta beren begiekin hiriak eta tenpluak IX. mendetik XIV. mendera bitartean izandako bilakaera ikusteko. Gainera, errealitate birtualeko bisitak erantzun bikaina izaten ari dira herritarren aldetik, kuantitatiboki —mila pertsonatik gora 2023an— eta gogobetetzeari dagokionez”.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus

“Halaber, proiektu honek duen dibulgazio-alderdia nabarmendu nahi dut, gure historia ezagutzera emateko Gasteizko eta Arabako herritarren artean; izan ere, errealitate birtuala tresna eraginkorra da herritar guztiek eskuratzeko moduko hizkuntzan Katedralako eta inguruneko indusketetan historialariek eta arkeologoen emandako ikerketa-urteak biltzeko”, gehitu du.

Bestalde, Santa Maria Katedrala Fundazioko kudeatzailea den **Jon Lasak** Arabako Foru Aldundiak emandako laguntza eskertu du, “teknologia berriak erabiliz bisitarien eskura jartzen dugun eskaintza turistikoa hobetzen jarraitzeko”. Era berean, Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntza eskertu du, Erdi Aroko Merkatuko jantziak utzi baititu, ondoren, XIII. eta XIV. mendeetako Katedralera ‘bidaiatzeko’ aukera ematen duten errealitate birtualeko hiru ikus-entzunezko berrien xehetasunak emateko. “2018az geroztik, Gasteizko jatorriari, Erdi Aroko harresiari eta Santa Maria Katedralari buruzko 3D formatuko liburuaren hainbat kapitulu idatzi ditugu. Orain, berriz, proiektu hau amaitu nahi izan dugu, Katedralaren eraikuntza-bilakaera osatuz hiru bideo berrirekin”.

“Ikus-entzunezkoak Katedralaren eraikuntza-bilakaeraren inguruko bideoen jarraipena eta osagarria dira, baina aurrekoetatik bereizten dira, lehenengoak jatorrizko Eliza Erromanikoan (XII. mendearen erdialdea) eta Katedralaren eraikuntzaren hasieran (XIII. mendearen hasiera) oinarritzen baitziren”, azaldu du Lasak.

360°-ko ikus-entzunezko murgiltzaile berriak

Lehen bideoan (Santa Mariaren birsortzea, 1280-1330 urteak), ikusleak egungo elizpean kokatzen dira (oraindik eraiki gabe), eta, bertan, hiriaren harresia eta irteerako atea, inguruneko hirigintza (XIV. mendeko lehen urteetan, baserriaren berrurbanizazio erabatekoa jasan zuena) eta Santa Mariaren eraikuntza (mendebaldeko fatxada) ikus daitezke. Alfontso VIII.ak hasitako tenpluan geldialdi garrantzitsu bat egin ondoren, Katedralaren obrari 1280. urtean ekingo diote berriro, eta arkitekturaren aldaketa garrantzitsuak egingo dituzte. Era horretan, tradizio erromanikoko ereduari jarraitzen zien lehen elizaren aurrean (kripta erabateko protagonista izanik), espazio sakratuaren ikuskera berri batekin bat datorren eraikina proiektatuko da; beraz, kripta kendu eta, aurretik zegoen eraikinak ezarritako muga barruan, logika gotikoa ezarriko da.

Bigarren bideoan (Iñiguezarren hileta-panteoia, 1300. urtea), Katedralaren barruan kokatzen dira bisitak, zehazki, transeptuaren hegoaldeko besoan, Hirutasun Santuaren eta Santa Anaren kaperen parean. Indusketa arkeologikoen arabera, kaperaren horien erdian Iñiguezarren leinuko hilobi exentu monumentalak zeuden, Santa Mariaren zaindari sortzaileak 1300. urte inguruan. Une hori lehen eszenaren garaikidea izan daiteke; gurutzadura errematatzen zuen egurrezko estalkia ere ikus daiteke.

Azkenik, eta baita elizpetik ere, **hirugarren bideoaren bidez (Fatxada harmonikoaren proiektua, 1330-1350 urteak)**, Santa Mariaren eraikuntza-prozesua ezagutzen jarraituko da — orain XIV. mendearen bigarren herenean—. Denboraldi horretan, beste egile batzuek tenplua mendebalderantz handitu zuten, mendebaldeko fatxada dorreduna sortuz, hiru aldeko portada eta guzti.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus

Obra hori zela-eta, kalea eta hiriko atea mendebalderago eraman behar izan zituzten, egungo elizpearen trazadurarekin bat eginez (oraindik eraikitzeko zegoena). Hori errealitate birtualera eramanda, bisitariek bigarren atea, inguruko hirigintza (Santa Mariako ospitalearekin) eta mendebaldeko hiru aldeko portadaren eraikuntzaren hasiera ikus ahal izango dituzte, bestek beste.

Errealitate birtuala Katedralean

360°-ko esperientzia berria bisita gidatuan sartuko da lehendik dagoen errealitate birtualarekin, eta, hori osatzeko, Katedralaren nabea eta hiriko Harresia bisitatu ahal izango dira. Interesatuak erreserbak egin beharko dituzte Katedralaren web orrialdean edo 945 255135 telefonora deituta.

Era berean, Santa Maria Katedrala Fundazioak 360°-ko bideoak herritar guztien eskura jarriko ditu www.catedralvitoria.eus web gunean, aurretik ekoiztako piezekin batera. Beraz, edukimota hori erreproduzitzeko garatutako gailu bat duen edonork ikus ahal izango ditu.

Lana ikerketarako eta hedapenerako asmo handiko proiektu batean kokatzen da; alegia, Katedralaren, Harresiaren eta Vitoria-Gasteizko jatorrien eredu birtual bat egitea, Santa Maria Katedralean eta haren inguruan egindako indusketen ikerketetan oinarrituta. EHUko Ondare Eraikiaren Ikerketa Taldea arduratzen da informazio historiko guztia emateaz, Gasteizko muinoa osatu duten elementu guztien kokapen geometriko zehatzaz gain. 3D modelaketa egiteko ardura Burgosko Unibertsitateko 3dUBU ikerketa-taldeak du, ikerketa historiko eta arkeologikoetara aplikatutako teknologia berrien erabilera adituak baitira.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus